

HEZKIDETZA

GENERO ESTEREOTIPOEI
AURRE EGINEZ,
11,12 ETA 13 URTEKO IKASLEEKIN

2022ko martxo-ekaina




PROPOSAMEN DIDAKTIKOEN KATALOGOA



Co-funded by the
Erasmus+ Programme
of the European Union

Nafarroako Gobernua Hezkuntza Departamentua  Gobierno de Navarra Departamento de Educación

2022ko martxo-ekaina



GATE tresna-kaxa – Genero-estereotipoen aurkako borroka ikastetxean

Tresna-kaxa hau Europar Batasunak finantzaturako nazioz gaindiko proiektu baten emaitzetako bat da.

Hainbat irakasgaitan eta arlotan lantzeko moduko jarduerak biltzen ditu.

Haietako batzuk epe laburretan egin daitezke, baina badira tarte luzeagoetan egitekoak ere. Jarduera guztiek argi eta garbi formulaturako helburuak eta jarraibideak dituzte, eta baliabide didaktikoekin osa daitezke. Azken horiek ere bildurik daude tresna-kaxan.

Ildo horretan, tresna-kaxa barnean hartzen duen proiektua eskolan genero-estereotipoen aurka borrokatzeko moduez arduratzen da. Jarraian, sarrera labur bat egiten da, generoari eta estereotipoei buruzko zenbait kontzepturen eta ulertzeko moduren gainean:

Generoaz mintzatzean –sexuari kontrajarritako termino gisa–, generoaren interpretazio sozial eta kulturala deienezakeen horri buruz ari gara.

Sexuak biologiari, kromosomei eta hormonei egiten die erreferentzia; generoa, berriz, genero-portaera egoki eta desegokiaren gaineko ulermen kultural eta sozialaz mintzo da.

Horrek esan nahi du denboraren poderioz aldatu egiten dela maskulinitasunaren eta femininitasunaren gainean ulertzen duguna, eta norbera bizi den lekuaren eta hazi den kulturaren arabera dela ulermen hori.

Beraz, portaera egokia zer den ulertzea ez dago betierekotasunean finkatuta, ez eta sexu biologikoari zuzenean lotuta ere.

Desberdintasunaren aurka egiteko tresna nagusietako bat zera da, desberdintasunak izan badirela konturatzea. Gure ikasleen errealitatea aztertu ezean, eta haien ideiei eusten dien mundu sinbolikoa ezagutu gabe, nekez deseraikiko dugu desberdintasuna, haren tokian berdintasuna eraikitzeko.

Hori dela eta, funtsezkoa da antolatzen ditugun jarduerak argi egitea hainbat alorretan, hala nola gure ikasleen «mundu sinbolikoa», izaki generodun izateari buruz dituzten ideietan, beren adinean generoaren arabera lan-banaketari buruz ikasi dutenaren gainean, edo etxeko erantzunkidetasunari eta berdintasunezko gurasotasunari buruz pentsatzen dutenarekin loturik.

Tresna-kaxa honetako jarduerak gai horiei buruzko eztabaida bideratzeko daude pentsatuta. Ildo horretan, gure ikasleek desberdintasunaz dituzten ideiei buruzko informazioa ematen dute, eta desberdintasunaren gaineko informazioa ere ematen die ikasleei.

Baina horretaz gainera, hemen eskaintako jarduera hauek guretzat ere badira aukera, irakasle garen heinean, argia eta aldaketa ekarriko duen plataforma bat eskaintzeko eta bertan parte hartzeko. Eta ez ikasleen bizitzarekin pentsaturik bakarrik, baita gure bizitza profesionalarekin ere.



1. jarduera. Publizitatea eta generoa

Gako-hitzak: hizkuntza eta diskurtsoa, gorputz-hizkuntza, botere-egiturak, ahalduntzea, irudikapen bisuala eta estetikoa, gizarte-harremanak, ulermen kritikoa, adierazpen-askatasuna

Helburua: Jarduera honen helburua da ikasleek material bisualak eta idatziak ikusmolde kritikoz barneratzeko trebetasuna garatzea, eta, hala, ikasleak genero-estereotipoak identifikatzera eta desafiatzera animatzea.

Gaitasun-arloak: Irakurtzeko eta idazteko gaitasuna. Gaitasun pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa. Gaitasun zibikoa.

Jarraibideak:

1. urratsa. Irakasleak 3-5 iragarki aurkeztuko ditu. Irakasleak aukeran izango ditu 1. eranskinen jasotako iragarki-bildumakoak, baina beste iragarki batzuk ere bilatu ahalko ditu Interneten edo aldizkarietan.

2. urratsa. Irakasleak ikasgelako iragarkien analisiari ekingo dio, galdera hauek eginez:

- Zer-nola ordezkutzen dira sexuak iragarkietan?
- Nola aldatu da sexuen irudikapena denboraren joanarekin?
- Ikusten duzu zeure burua iragarkiotan?

3. urratsa. Ikasleek elementu estereotipatuak identifikatuko dituzte iragarkietan, eta titular bat sortuko dute haietako bakoitzerako

4. urratsa. Aukeratutako iragarki bat berreraikitzea:

- ikasleak 2-4ko taldetan ipinita, birmoldatzeko iragarki bat hartuko dute, aukezturikoen artetik.
- Analisisian landutako puntuak abiapuntu harturik, iragarkiko irudikapen bisualen tokian (koloreak, jantziak, jostailuak, eta abar) irudikapen ez-sexistak baliatuko

dituzte (koloreak, protagonistaren generoa, objektuak eta abar).

- Ikasleek 3. urratsean sortutakoaz bestelako titular bat ipiniko diote iragarkiari.

5. urratsa. Ikasleek emanalditxo bat egingo dute ikastetxeko gune komun batean edo beste ikasgela batean, «aurretik» eta «ondoren» ereduari jarraituz.

Iraupena: 3-4 ikastordu

Materialak: tresna artistikoak, ordenagailurako sarbidea, 1. eranskineko irudiak/baliabideak.

Lekua: ikasgela.

1. aukera. Iragarki ez-sexista bat sortzea:

Jardueraren osagarri gisa balio du.

Ikasleek, jardueran eskuratu dituzten ezagutzetatik abiaturik, beren iragarkia sortu behar dute.

Ikasleak 2-4ko taldetan ipinita, iragarri nahi duten produktu bat aukeratuko dute.



Norentzat egingo duten, xede-publikoa, eta helarazi nahi duten mezua erabakiko dituzte. Orain, ikasleek genero-aurreiritzirik gabeko iragarki bat sortu beharko dute, eta, horretarako, oso kontuan hartuko dituzte iragarkian ageri diren pertsonen tankera, jantziak, objektuak eta irudikapen bisualari laguntzen dion testua. Ordenagailuko grafikoak, aldizkarietako eta egunkarietako irudiak edo eskuz eginiko marrazkiak erabil ditzakete. Azkenean, erakusketa bat antola dezakete ikastetxeko tokiren batean, edo beste ikasgela batean aurkeztu.

Iraupena: 3-4 ikastordu

Materialak: tresna artistikoak, ordenagailurako/iPaderako sarbidea, egunkariak, aldizkariak, kartoi meheak.

Lekua: ikasgela.

2. aukera. Genero-aurreiritzirik gabeko collagea

Ikasleek egunkarietako eta aldizkarietako hiruzpalau iragarki aukeratuko dituzte, eta irakasleak iragarkien analisiari ekingo dio, jatorrizko jarduerako galdera berberak erabiliz.

Ondoren, ikasleek aukeratutako iragarkietako bat «deseraiki» beharko dute, eta genero-aurreiritzirik gabeko collage berri bat sortu, jatorrizkoa aurkitu zuten egunkari eta aldizkarietako irudiak eta ebakinak baliatuz.

Xedea da ikasleei ikusaraztea irudiak berez ez direla nahitaez partzialak, baizik eta irudiak erabiltzeko modua izan daitekeela partziala.

Iraupena: 2-3 ikastordu

Materialak: egunkariak, aldizkariak, kartoi mehea.

Lekua: ikasgela.

3. aukera. Ikus-entzunezko iragarkien analisia

Ikasleek Bulgariako telebistako iragarki bat ikusiko dute:

<https://youtu.be/4AoL4wNNcgk>

Itzulpena jarraian dago jasota, eta hauxe eztabaidatuko dute taldeka:

- Zure ustean, zergatik eskatu dizute iragarki hori ikusteko, jakinik genero-kontuak lantzen ari garela?
- Iragarkiaren zein zati iruditu zaizkizu diskriminatzaileak generoaren aldetik?
- Deskribatu dezakezu iragarkian genero-bereizkeria sortzen duen gorputz-hizkuntza?

Hurrengo urratsa izango da taldeek tankera horretako iragarkiak bilatzea Interneten (daniarrak, finlandiarrak, frantsesak, espainiarrak...). Behean, zerrenda bat, aukeran. eta galdera hauei erantzutea:

- Zertan du antza topatu duzun iragarkiak Bulgariakoarekin?
- Zertan bereizten da?
- Zergatik iruditzen zaizkizu desberdinak?
- Ze rol betetzen dituzte irakargietan emakumeek? Eta gizonak edo mutilek?

<https://www.youtube.com/watch?v=jlbGxyjO2aM&t=11s> (Ariel)

https://www.youtube.com/watch?v=-LMA_7Nkloo (Gillete)

https://www.youtube.com/watch?v=6wIVxgT0Bug&list=PLPQtUub43U_jjbnND-kDdixj_I7a7keH&index=15E1 (Campofrío, Doritos eta Dolce Gavanna)



https://www.youtube.com/watch?v=n_MU8ayJ1xl (Recopilación de varios)

Iraupena: ikastordu 1

Materialak: ordenagailurako sarbidea.

Lekua: ikasgela.

Iragarkiaren itzulpena:

- Tsvety, kafea! Kaixo! Bashar Rahal dut izena, eta Pupil TVko zuzendaria naiz. Ikaslea bazara, gogoratu aurten!

- Hementxe zure kafea, jauna!
- Aurten duzu aukera telebistako aurkezle, gidoilari, aktore edo antolatzaile ospetsu bihurtzeko, Bulgariako Pupil's TV komunikabide gazteenean! Ospetsu bihurtu nahi baduzu, joan casting nazionalera Sofia, Blagoevgrad, Plovdiv Burgas, Varna, Veliko Tarnovo edo Rusen. Iragarkiaren amaiera!
- Hementxe zure kafesnea, jauna!
- Ikusten duzu: Tsvety dagoeneko ezagun bihurtu da!



2. jarduera. Hizkuntza inklusiboa, generoari dagokionez

Gako-hitzak: hizkuntza eta diskurtsoa, komunikazioa, ulermen kritikoa, identitatea, botere-egiturak

Helburua: Jardueraren helburua da kontzientzia areagotzea hizkuntzak generoari buruz dituen nozio espezifikoaren gainean.

Gaitasun-arloak: Irakurtzeko eta idazteko gaitasuna. Gaitasun pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa. Gaitasun zibikoa, kontzientzia kulturala eta adierazpen-gaitasuna.

Jarraibideak:

1. Irakasleak hainbat esaldi botako ditu ikasgelan. Esate baterako (egokitu egin behar dira adibideak testuinguru eta hizkuntza nazional espezifikoetarako):

- *Utzi neska-kontuei!*
- *Gizon izan.*
- *Marimutil.*
- *Mutilek ez dute negarrik egiten.*
- *Potroak eduki.*
- *Pilota botatzea, korrika edo borroka egitea neska batek bezala.*

Baliteke egokia edo beharrezkoa izatea esaldi gehiago asmatzea.

Galdetu ikasleei ea inoiz entzun dituzten esaldiok eta badakiten zer esan nahi duten. Badago termino baztertzailerik? Zer zentzutan? Badago aurreiritzirik generoekiko? Neskenganako? Mutilenganako? Ikasleek aztertu nahi duten hitz edo esaldi bat aukeratuko dute:

2. Ondoren, ikasleak Googlen hitza edo esaldia bilatzen saiatuko dira. Zer agertzen da? Zer dio hiztegiak hitz horri buruz? Aldatu

egiten da hitzaren edo esaldiaren esanahia mutil bati edo neska bati esanez gero? Zer iruditzen zaizu hitza edo esaldia? Zure ustez, erabiliko da hitz edo esaldi hori 10 urte barru? Zergatik? /Zergatik ez?

3. Eztabaidatu ikasgelan:

Nola laguntzen dute erabiltzen ditugun hitzek eta esaldiek pertsonak generoaren arabera sailkatzen?

Zergatik uste da ezberdintasunak daudela neskek eta mutilek egin dezaketenaren artean?

Nola sor dezakegu genero-aurreiritzirik gabeko hizkuntza?

Iraupena: 1-2 ikastordu (ikastordu 1 = 45 min)

Materialak: generoaren aldetik hizkuntza eta esaldi inklusiboak baliatzen dituzten horma-irudiak, Internetarako sarbidea

Lekua: ikasgela.



3. jarduera. Dilemak

Gako-hitzak: hizkuntza eta diskurtsoa, ulermen kritikoa, komunikazioa, identitatea

Helburua: Ikasleek generoarekin lotutako dilemei buruzko kontzientzia eta hausnarketa areagotzea, eta egoera horietan nola joka dezaketen azaltzea.

Gaitasun-arloak: Irakurtzeko eta idazteko gaitasuna. Gaitasun zibikoa. Gaitasun pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa.

Jarraibideak:

1. Irakasleak ikasgelarako garrantzitsuak iruditzen zaizkion dilemak aukeratuko ditu. Jarduerari ekiteko, lan-metodoa aurkeztuko die ikasleei:

Erabaki bat hartzea da kontua, nahiz eta zalantzak izan.

Helburua ez da akordio batera iristea, baizik eta dilema horri heltzeko hainbat modu aztertzea.

Ezin duzue ezer esan besteen aukereez.

2. Ikasleek erabakiko dute istorioko pertsonaiek nola joka dezaketen egoera batzuetan eta besteetan. Irakasleak aukera bakoitza adierazten duten 4 puntu markatuko ditu ikasgelan, eta aukerak irakurriko ditu ikasleen aurrean. Ikasleak beren ustez aukerarik egokiena den ikasgelako tokira joango dira.

3. Ikasle guztiek leku bat aurkitzen dutenean, irakasleak honako galdera hauek egingo dizkie ikasleei:

- Zergatik iruditzen zaizu onena ekintza-aukera hori?
- Zure ustean, zer gertatuko da ekintza hori aukeratzen baduzu?
- Bururatzen zaizu ezer problematikorik ekintza horri dagokionez? Bada hain ona ez den zerbait ekintza horretan?

4. Talde guztiek beren ikuspuntua azaltzen dutenean, irakasleak galde dezake ea norbaitek iritzia aldatu duen erantzunak entzun ondoren.

Jarduerak jarrai dezake beste istorio/dilema batzuekin.

Iraupena: 1-2 ikastordu (ikastordu 1 = 45 min)

Materialak: dilemak jasotzen dituen lan-orria.

Lekua: ikasgela.

Dilemen adibideak:

1. adibidea

Jolas-garaian, gelako mutil batzuk futboleant ari dira eskolako jolastokian. Yasmin haiekin jokatu nahian dabil. Eta mutiletako batek, oihuka: «Futbola ez dun nesken kontua!», eta jokatzeko jarraitu du. Zer egingo du Yasminek?

1. aukera: Yasminek beste neska batzuk bilatuko ditu futboleant jokatzeko.

2. aukera: Yasminek oihukatuko du futbola badela nesken artean ere, eta futbol-zelaian sartuko da korrika.

3. aukera: Yasminek irakasle bati kontatuko dio.



4. aukera: Asmatu zeure erantzuna.

2. adibidea

Isabellak bere argazki bat argitaratu du Instagramen, bikinian. Malou ikaskideak «emagaldu» deitu dio iruzkinetan. Isabella haserre dago iruzkinarekin. Zer egin dezake Isabellak?

1. aukera: Isabellak Malourekin hitz egingo du eskolan elkar ikusten duten hurrengoan.

2. aukera: Isabellak ez dio jaramonik egin behar iruzkinari.

3. aukera: Isabellak ikasgelako lagun batzuekin hitz egin behar du, zer egin dezakeen erabakitzeko.

4. aukera: Asmatu zeure erantzuna.



4. jarduera. Generoarekiko jarrerak

Gako-hitzak: hizkuntza eta diskurtsoa, komunikazioa, identitatea, pribilegioak, desberdintasuna, generoaren arabera lan-banaketa

Helburua: Sexuen ezaugarriei buruzko eztabaida piztea eta ikuspegi kritikoa aberastea.

Gaitasun-arloak: Gaitasun pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa. Kontzientzia kulturala eta adierazpen-gaitasuna.

Jarraibideak:

Ikasleak aulkietan eserita ipiniko dira, zirkulu bat osatuz. Irakasleak baieztapen bat irakurriko du. Ikasleak ados badaude, zutitu egingo dira.

Ikasleak zutitzean, irakasleak galdetuko du zergatik dauden ikasleak dauden lekuan zutik. Ikasleek ikaskideen arrazoiak entzun dituztenean, irakasleak esertzeko aukera eman diezaieke, baieztapenari buruzko iritzia aldatu badute.

Txanda bakoitzaren ondoren, denak eseriko dira berriro, eta irakasleak beste baieztapen bat irakurriko du.

Aholkua: Ideia ona izan daiteke bi baieztapen neutroekin hastea jarduera, ikasleek jarduerak nola funtzionatzen duen praktikatu ahal izateko.

Iraupena: ikastordu 1 (45 minutu)

Lekua: ikasgelaren barruan edo kanpoan

Materialak: enuntziatuak biltzen dituen orria (egokitu egin behar da herrialde eta testuinguru bakoitzera)


1. aukera. Lerroa sortzea

Marraztu irudizko lerro bat edo lerro fisiko bat lurrean. Lerroaren mutur batean «erabat ados» ageri da, eta bestean, berriz, «batere ados ez». Irakasleak baieztapen bat irakurriko du, eta ikasleek leku bat bilatuko dute


lerroan, baieztapenarekiko adostasun-mailaren arabera. Ikasle guztiak kokatzen direnean, irakasleak galdetuko die ea zergatik aukeratu duten leku hori. Pare bat galderaren ondoren, ikasleak mugitu ahal izango dira, baldin eta, beste ikasleen azalpenak entzun ondoren, konbentziturik geratu badira beste jarrerarekin.

Esaldien adibideak (asmatu gehiago, beharrezkoa bada):

- Neskek kontzentratzeko gaitasun handiagoa izan ohi dute mutilek baino.
- Emakumeak enpatikoagoak dira gizonak baino.
- Generoa jaiotzatik dugun zerbait da.
- Neskei ez zaie gustatzen futboleko jokatzeari.
- Mutilak atletikoagoak dira neskek baino.
- Mutilak hobeak dira matematiketan neskek baino.
- Neskek hobeak dira matematiketan mutilak baino.
- Niri genero bereko ikaskideekin lan egitea gustatzen zait.
- Ez dit axola generoak.



- Emakumeek gizonek baino hobeto egiten dituzte etxeko lanak.
- Gizonek dirua ekartzen dute etxera, eta emakumeek, berriz, janaria prestatzen dute.
- Gizonek emakumeek bezalaxe egiten dituzte etxeko lanak.
- Bidezkoa da gizonek eta emakumeek etxeko lanak partekatzea.



5. jarduera. Jolasgunea eraldatzea

Gako-hitzak: *norbere buruarekiko errespetua, gizarte-harremanak, herritartasuna, ahalduntzea*

Helburua: Jolas-garaiko jokoak inklusiboagoak izatea. Generoak eskola-jokoetan parte hartzeko hainbat modu ahalbidetzen eta desaktibatzen dituela ohartaraztea.

Gaitasun-arloak: Eleaniztasunerako gaitasuna. Gaitasun pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa. Gaitasun zibikoa. Kontzientzia kulturala eta adierazpen-gaitasuna.

Jarraibideak:

1. Jolastokiari erreparatzea

Definitu ikastetxeko jolastokiko eremuak. Ikasleei eremu bat eta zeregin hauetako bat esleituko zaizkie:

- a. Astebetean, bi ikasleko taldeek neskak (N) eta mutilak (M) mapako zer eremutan kokatzen diren zehaztuko dute, eremuz eremu eta aldi desberdinak kontuan harturik.
- b. Aste horretan, bi ikasleko taldeek eremu jakin baten hiru argazki egingo dituzte egunean, ordu desberdinetan. Argazkien analisia egingo da taula hau baliatuz:
Oharra: ikasleek ezin badute egin argazkirik, zuzenean idatz ditzakete beren oharrak taulan.

Name (s) of observer (s)

.....

Class groups in recreation:

Zône observed:

* If in the same photo there are boys and girls playing different things, write them all down on the grid. For example: Day 1 photo 1: games: 3 girls football, 1 girl watching; 1 boy jumping rope, 1 boy soccer.

The same remark goes for the equipment.

In the number column, note only the number of girls and the number of boys that appear in the photo.

		NUMBER		GAMES*		EQUIPMENT*	
		Filles	Garçons	Filles	Garçons	Filles	Garçons
DAY 1 (date and time)	photo 1						
	photo 2						
	photo 3						
DAY 2 (date and time)	photo 1						
	photo 2						
	photo 3						
DAY 3 (date and time)	photo 1						
	photo 2						
	photo 3						
DAY 4 (date and time)	photo 1						
	photo 2						
	photo 3						



2. Analisia eta ikasgelako eztabaida

Ikasleek ikasgelan aurkeztuko dituzte ikusitakoak (mapak, argazkiak, oharrak). Irakasleak, ikasleekin batera, taldeetan ikusitakoen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak bilduko ditu.

Ikasgelan eztabaidatzeko galderak:

- a. Jolastokiko zein gunetan eman duzue denbora gehien? Norekin? Zergatik?
- b. Gustatuko litzaizuke beste eremu batzuetan maizago jokatzea? Beste zerbaitetan jokatu nahi duzu? Horrela bada, zertan, non eta norekin?
- c. Ezagutzen al duzu denen gustukoa izan daitekeen jokorik?

3. Aldaera. Zer joko nire ikastetxeko jolastokirako?

Hiruzpalau ikasleko taldeetan ipinita, sortu genero-bereizkeriarik gabeko jarduera bat aste osorako eta egin jarduera- eta joko-zerrenda bat, jolas-garaian sexuak bereizi gabe ibiltzeko modukoa.

Iradokizunak azterturik, iritsi akordio batera (bozketa bidez), jolastokia astebetetz antolatzeko.

Ipini praktikan antolaketa hori, eta ebaluatu astearen amaieran.

Iraupena: 2 x 40 min 3 x 40 min (aldaera)

Lekua: ikasgela eta jolastokia

Materialak: marrazketa-materiala, argazki-kamerak



6. jarduera. Gazte-literaturan oinarritutako jarduerak

Gako-hitzak: komunikazioa, ulermen kritikoa, hizkuntza eta diskurtsoa, botere-egiturak, arauak.

Helburuak: Jarduera honen helburua da literaturako genero-estereotipoen gaineko kontzientzia sortzea eta literatura interpretatzeko moduari buruzko ideiak ematea, genero-estereotipoen eta genero-aurreiritzien nozioa astintzeko.

Gaitasun-arloak: Irakurtzeko eta idazteko gaitasuna. Eleaniztasun-gaitasuna. Kontzientzia kulturala eta adierazpen-gaitasuna.

Jarraibideak:

Irakasleak ikasle guztiek irakurri beharreko liburu bat aukeratuko du. Izan daiteke nobela labur bat, ipuin bat edo liburu ilustratu bat; irizpide bakarra da liburuan maskulinitasunaren eta feminitasunaren bestelako irudikapen bat agertzea.

Aukeratutako liburuaren inguruko literatura-jarduerak:

- Ulermena lantzeko galdetegi bat, liburu pertsonaien irudikapenari eta jardunari buruzko galderak biltzen dituen. Era berean, protagonistak eta antagonistak identifikatuko dira, eta aztertuko da zerk egiten dituen diren modukoak.
- Pertsonaien ezaugarriak berariaz jorratzen dituen lan-orri bat. Ikasleei literatura-lan horretako pertsonaiak emango zaizkie, azter ditzaten, eta galderak tankera honetakoak izan daitezke: a) nolakoa da zure pertsonaia?; b) zer egitea gustatzen zaio zure pertsonaiari?; c) zer dakigu zure pertsonaiaren aldarteaz?
- Eztabaida bat egingo da ikasgela osoan, lan-fitxak abiapuntutzat

hartuta eta honako galdera hauei helduz: a) identifika ditzakezu liburu estereotipoak?; b) identifika ditzakezu jokabide sexistak?; c) pentsa dezakezu nola aldatu trama edo ezaugarriak, estereotipo eta portaera sexistak astintzeko?

- Egin zerrenda bat, ikasleek aurrez aurre izan ohi dituzten genero-estereotipoekin edo jarrera sexistekin: etxeko lanak, lanbideak, aisialdia, kirolak, eta abar.

Iraupena: etxean irakurriz gero, 2 ikastordu; ikasgela irakurriz gero, 6-8 ikastordu

Lekua: ikasgela.

Materialak: haur- eta gazte-literaturako adibide bat edo gehiago, maskulinitasunaren eta feminitasunaren ikuskera desberdinak irudikatzen dituztenak.

1. aukera.

Sareko irakurketa: ikasleek hainbat liburu dituzte eskura, eta gustuko duten besteren bat ere aukera dezakete. Irakurri ondoren,



ikasleek sinopsi bat idatziko dute, eta, bertan, trama, pertsonaiak eta klimaxa azalduko dituzte, jarduera nagusiarekin batera datozen lan-orrietan. Azalpenotan, kontatuko dute liburuak zeri buruz diharduen, zer-nolako jokabide sexista deskribatzen den, eta nola libratzen diren heroiak edo pertsonaiak.

Idatzizko lana da, eta ikasleek talde txikiagoetan edo ikasgela osoaren aurrean aurkeztuko dute beren sinopsia.



7. jarduera. Zerk bihurtzen nau naizen modukoa?

Gako-hitzak: identitatea, komunikazioa, ulermen kritikoa, diskriminazioa

Helburuak: Jarrerren, ekintzen eta hitzen bidez diskriminazio- eta aurreiritzi-egoerak identifikatzeko gai izatea, eta norberaren ikuspuntuak besteenak kontuan hartuta adierazteko eta lantzeko gai izatea, betiere eztabaida baliatuz.

Gaitasun-arloak: Eleaniztasun-gaitasuna. Gaitasun pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa. Kontzientzia kulturala eta adierazpen-gaitasuna.

Jarraibideak:

Ikasleek beren burua marraztuko dute xehetasunekin (arropa, sexua, interesak, ilearen luzera, eta abar). Ondoren, elkarren marrazkiak ikusiko dituzte.

Gainerako ikasleen marrazkiei erreparatzean, antzekotasunak topatu beharko dituzte. Zer antzekotasun-mota topa daitezke, generoen edo larruazal-kolorearen arteko aldea gorabehera?

Taldean edo bikoteka, aurkitu dituzten antzekotasunei buruz eztabaidatuko dute. Gai honi buruz ere aritu daitezke: Beste pertsona batzuek ari garela, zergatik erreparatzen diegu askotan ezberdintasunei, antzekotasunetan zentratu ordez?

4. Begiratu berriro irudiei. Eztabaida (zer jakin daiteke pertsona bati buruz begiratze hutsarekin?).

5. Eztabaida: Zergatik ateratzen ditugu pertsonen buruzko ondorioak begiratze hutsarekin? Zergatik izan daiteke ona, eta zergatik txarra?

6. Eztabaida: Nola mugatu eta eragotzi dezakete aurreiritziek garen modukoak izatea? Zer ondorio ekar ditzake horrek? Nola

lagundu elkarri, eta nola utzi bakoitzari den bezalakoxea izaten?

7. Idatzi iradokizunak horma-irudi batean, eta ipini ikasgelan oroigarri gisa.

Iraupena: 1-2 ikastordu

Lekua: ikasgela.

Materialak: papera, koloreztatzeko boligrafoak, kartoi mehea.

1. aldaera. Kaxa betetzea

2-4ko taldeetan ipinita, ikasleek kartoizko kaxa bat jasotzen dute. Talde bakoitzari «mutilen kaxa» edo «nesken kaxa» esleituko zaio. Ondoren, kaxa betetzeko eskatuko zaie. Egunkari edo aldizkarietako ebakinekin, ikasgelan aurkitutako objektuekin edo etxetik ekartzeko eskatzen zaien objektuekin bete daitezke. *Beren ustean*, «mutilenak» edo «neskenak» diren objektu edo irudiekin bete behar dute kaxa.

Ondoren, «nesken kaxa» jaso duten taldeei kaxa eta edukia aurkezteko eskatuko zaie. Argudiatu beharko dute zergatik dauden lotuta kaxako objektuak haien ustean neskei gustatu beharko litzaiekeenarekin. Ondoren,



beste horrenbeste egingo dute «mutilen kaxa» daukatenek.

Eztabaida: irakasleak, eztabaidari ekiteko, ikasleei galdetuko die ea badakiten zer diren estereotipoak, eta, inork ez badaki, azaldu egingo du. Ondoren, genero-estereotipoetara egokitzen diren kutxetako objektuak identifikatuko dituzte. Azkenik, kutxetako

antzeko objektuak identifikatuko dituzte, eta, horrekin, kontzientzia piztuko da ikasleen artean, genero-aurreiritziz ikusten diren objektuen eta irudien gainean.

Egilea: Ekvalita (2020): Skapa Plats



8. jarduera. Tefloiaren proba

Gako-hitzak: arauak, pribilegioak, diskriminazioa, ulermen kritikoa

Helburuak: Jarduera honen helburua da pribilegioei eta portaera normatiboari buruzko kontzientzia piztea.

Gaitasun-arloak: Gaitasun pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa. Kontzientzia kulturala eta adierazpen-gaitasuna.

Jarraibideak:

Tefloi-proba izenaren atzean dagoen ideiak adierazten du ezen, egoera batzuetan, arauaren jarraitzaileak irristatu egiten direla egoera guztietan: gurinak tefloizko zartagin bero batean egiten duen bezalaxe. Arauari jarraitzen ez diotenak, berriz, itsatsirik geratzen dira zartaginean: halaxe geratzen da gurina ere, zartagina hotz dagoenean.

Tefloi-galdetegia betetzea. Ikasleek banaka bete dezakete, edo elkarrekin hitz eginda eta bikoteka ere bai.

Eztabaida taldeka edo denen artean:

Galdera hauek abiapuntu harturik, irakasleak bide egingo du ikasleek pribilegioei eta jarrera pribilegiatuei buruz hausnar dezaten.

- Ikusten duzu patroirik?
- Zein kategoriatan jarraitzen diozu aruari, eta zeinetan ez?
- Zergatik uste duzu dela garrantzitsua jakitea noiz jarraitzen diozun eta noiz ez?
- Zer sentitzen da araua betetzean?
- Eta ez betetzean?
- Zer eratako egoeretan izan duzu gai horrekin lotutako tirabirarik?
- Nola erabil ditzakegu arauak eta pribilegioei buruzko ideia horiek modu eraikitzailean?

- Zer egin dezakezu eskola-orduetan arauak betetzen ez dituzten gorabeherak saihesteko?

The Teflon test

Think about, and put a tick in the corresponding box, how often, if ever, you have experienced discomfort, looks, taunts, abuse or uncomfortable questions because of any of the reasons below.

	Often	Sometimes	Rarely	Never
Gender	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Sexual orientation	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Age	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Religion	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Gender identity	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Disability	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Ethnicity	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Social group/background	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Body shape	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>


Iraupena: 2 ikastordu

Materialak: Tefloi-galdetegia

Lekua: ikasgela.

Egilea: Ekvalita (2020): Skapa Plats

*Oharra: ziurtatu ikasleek ulertzen dutela **posizio pribilegiatuak** ulertzera bideratutako ariketa dela, eta ez **pertsona pribilegiatuak** ulertzera.*



9. jarduera. Ukipen-mapak

Gako-hitzak: gorputz-hizkuntza, osotasuna, norbere buruarekiko errespetua, gizarte-harremanak, komunikazioa

Helburua: Hausnartzea ukituak desberdin interpretatu daitezkeela, ukitzen zaituen pertsonaren eta inguruabarren arabera.

Gaitasun-arloak: Gaitasun pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa. Kontzientzia kulturala eta adierazpen-gaitasuna.

Jarraibideak:

Ikasleek beren burua marraztuko dute paperean (aurretik eta atzetik).

Taldeari esango zaio hiru eratako ukituak daudela (ezezaguna, adiskidetsua eta intimoa). Eman maiz egokiak diren ukituen adibideak: elkarri eskua ematea, adiskide baten besarkada.

Ikasleek kolore bat erabiliko dute ukitu ezezagunetarako eta beste bat adiskidetsuetarako; halaber, ezezagunak eta lagunak ukitzeko eremu egokiak margotuko dituzte. Ukitu intimoetan ere pentsa dezakete, baina ez dituzte marraztu behar paperean.

Ikasleek marrazkiak egiten dituzten bitartean, irakasleak tankerako marrazki bat egingo du arbelean.

1. Eztabaidatu taldean zer egoeratan ukitzen den ezezagun gisa eta zer egoeratan adiskide gisa. Badute antzekotasunik eta desberdintasunik? Eztabaidatu, halaber, nolakoak diren eta nola sentitzen dituzten ukituak, eta ez soilik non gertatzen diren eta norekin.

Aretoan beste heldu bat badago, ukitzeko modu desberdinak erakuts ditzakezu (bestela, zeure burua erabil dezakezu). Ez egin ikasleekin.

Adierazi pertsonak desberdinak garela eta, antzeko ukituekin, desberdin sentitu gaitzkeela. Nola eman ezezkoa, ez baduzu nahi inork ukitzerik?

Iraupena: ikastordu 1

Materialak: papera, margoak, arbela

(Ahal bada, beste heldu bat edo irakaskuntzako laguntzaile bat)

Lekua: ikasgela.

Egilea: Ekvalita (2020): Skapa Plats



10. jarduera. Ezezkoa ematea - Eztabaida

Gako-hitzak: gorputz-hizkuntza, komunikazioa, norbere buruarekiko errespetua, adierazpen-askatasuna, osotasuna

Helburuak: «Ez» hitzaren erabilerari buruz hausnartzea eta, gorputz-hizkuntzaren ikuspegitik, «ezezko» bat nolakoa izan daitekeen hausnartzea. Halaber, isiltasunak ere «ezezkoa» esan dezakeela ikustea.

Gaitasun-arloak: Gaitasun pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa.

Jarraibideak

Jakinarazi ikasleei batzuetan zaila dela jendeari entzutea. Heziera onekoak izatea eta jendeari minik ez egitea espero da gutaz. Horregatik, egoera askotan ez dugu ezetz esaten zuzenean, eta beste modu batean saiatzen gara.

Banatu gela hiruzpalau lagun inguruko talde txikietan. Galdera hauen inguruan eztabaidatzeko eskatuko diegu.

Nola erakutsi besteri ekintza hauek egin nahi ditugun ala ez?

- Dantza egitea, norbaitek interesa erakusten duenean.
- Besarkatzea, norbaitek besarkatu nahi zaituenean.
- Norbaiti telefono-zenbakia ematea.
- Hitzordu batera joatea.

Noiz izaten da zaila ezetz esatea?

Eta baietz esatea?

Zeren beldur izaten zara halako egoeretan?

Zergatik?

Jokatzen duzu inoiz «ezezkoa» sumatu izan ez bazenu bezala, nahiz eta jakin jaso duzula?

Zer dela eta jarrera hori?

Zer ondorio ditu plantak egiteak?

Iraupena: ikastordu 1

Materialak: Alorrarekin lotutako gaiak

Lekua: ikasgela.

Egilea: Ekvalita (2020): Skapa Plats



11. jarduera. Sortze-araua, trafiko-seinaleak

Gako-hitzak: arauak, adierazpen-askatasuna, botere-egiturak, irudikapen bisuala eta estetikoa

Helburuak: Hainbat egoeratan gizonen eta emakumeen nagusitasun-kontzientzia sortzea eta ikasleei araugintza-sormena praktikatzeko laguntzea.

Gaitasun-arloak: gaitasun pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa. Kontzientzia kulturala eta adierazpen-gaitasuna.

Jarraibideak:

Trafiko-seinaleak baliatuz gero lanerako, arau-ikuspegia txerta daiteke, zer antzekotasun dituzten hausnartuz.

Erreparasatu normaltasunez arauak eta trafiko-seinaleak

1. Eskatu ikasleei «inklusio» terminoa beren hitzekin azaltzeko.
2. Azaldu ikasleei nola ulertzen duzun «inklusio» terminoa (erabil dezakezu jarduera honetan sartutako glosarioko definizioaren bertsio egokitua)
3. Erakutsi trafiko-seinaleen irudiak; Interneten topa ditzakezu hainbat eta hainbat, edo ikasleei eska diezaiekezu 3-5 trafiko-seinale inguru bilatzeko.
4. Egin galdera hauek ikasleei:
 - Nor agertzen dira irudi hauetan? (Adibidez, «mutila» edo «neska» aipatzen badute, galdetu nolatan dakiten hori).
 - Zer mezu ematen du irudiak generoari buruz?
 - Falta da norbait argazkietan? (Desgaitasuna duten pertsonak, adinekoak, haurrak, eta abar).

5. Eztabaidatu ikasleekin zer sentitzen den irudietan sartuta ez egoteagatik.
6. Eskatu ikasleei beren trafiko-seinaleak marrazteko, pertsonen eta animalien irudiak barne.
7. Saioa amaitzeko, eztabaidatu marrazkiei buruz (zer bururatu zitzaizen, eta abar).


Iraupena: ikastordu bat

Lekua: ikasgela.

Materialak: Pertsonak eta animaliak ageri dituzten trafiko-seinaleen irudiak

Oharra. Inklusio terminoaren glosarioko definizioa: *Bestela kanporatuta edo baztertuta gera litezkeen pertsonen aukerak eta baliabideak berdintasunez eskuragarri ipintzeko praktika edo politika, hala nola ezintasun fisiko edo mentalak dituztenei, eta beste talde minoritario batzuetako kideei.*

Egilea: Ekvalita (2020): Skapa Plats



12. jarduera. Lantokiko genero-bereizkeriaren azterketa

Gako-hitzak: ulermen kritikoa, botere-egiturak, generoaren arabera lan-banaketa, genero-bereizkeria, desberdintasuna

Helburuak: Jarduera honetan, ikasleek ulertuko dute generoa ezagutza antolatzeko modu bat dela. Lanbideen eta, horrekin lotuta, soldaten genero-azterketa nola egin praktikatu dute ikasleek. Horrekin batera, aztertuko dute zer lotura dagoen genero-bereizkeriaren eta langileen artean, soldata-mailei dagokienez.

Gaitasun-arloak: Irakurtzeko eta idazteko gaitasuna. Matematikarako gaitasuna, eta zientzia, teknologia eta ingeniartzako gaitasuna. Gaitasun zibikoa.

Jarraibideak:

Hasteko, irakasleak hainbat lanbidetako emakumezko eta gizonezkoen irudiak erakutsiko ditu, eta lanbide bakoitzerako egokia zein den eztabaidatzera animatuko ditu ikasleak. Jarraian, irakasleak bikoteka esertzen utziko die ikasleei, eta lanbideen zerrenda bat banatuko du, eztabaidatzeko.

1. Lanbide horietako zein dira «tipikoak» emakumeentzat eta gizonentzat? Zergatik da hori horrela? Gelan eztabaidatuko dute hori. Ondoren, ikasleek soldata-mailaz eztabaidatuko dute, lanbideen zerrenda beraren gainean.
2. Zein lanbidetan irabazten dute gehien? Zergatik?
 - Zerrendatu lanbideak soldataren arabera.
 - Ageri da genero-patroirik zure zerrendan?

- Ageri da genero-patroirik zure zerrendan?

Ondoren, irakasleak estatistika nazionalen zerrenda «zuzena» erakutsiko du, eta, jarraian, elkarrekin eztabaidatuko dute zer egin behar den, eta abar. Halaber, eztabaidatu dezakete beren etorkizuneko lanbidean soldata-maila kontuan hartuta pentsatzen duten, eta horrek zer esan nahi duen herrialderako nazio gisa.

Hori irakasgai gisa balia daiteke, adibidez matematikan edo gizarte-zientzietan.

Iraupena: 1-2 ikastordu

Lekua: ikasgela.

Materiala:

Hainbat lanbidetako pertsonen argazkiak.

Lanbideen batez besteko soldaten zerrenda (estatistikako erakunde nazionalen kontsulta daiteke).



1. aukera.

Irakasleak lanbide bat aukeratuko du, zeinean gizonak/emakumeak baitira nagusi (adibidez, erizaina, ingeniaria, irakaslea, informatikako aholkularia). Errazagoa da nagusitasun argia ageri bada. Ikasleek bikoteka edo taldeka lan egingo dute ehunekoaren kontaktarekin.

Honela egin daitezke ariketak (adibide moduan ingeniariak erabiliz):


1. Zenbat irabazten du gizonezko ingeniari batek batez beste hilean/urtean? Zein da emakumezko ingeniari baten batez besteko soldata?
2. Ehunekotan, zein da emakumezko ingeniari baten eta gizonezko ingeniari baten soldataren arteko aldea?
3. Emakumeak hiru aldiz gehiago irabaziko balu, zenbat irabaziko luke gizonezko ingeniariak?
4. Orduan, zenbatekoa da «emakumezko ingeniarien arraila»?
5. Zentzuzkoa da hori? Zer egin beharko litzateke eta nork egin beharko luke?

Iraupena: 1 - 2 ikastordu.

Materialak: Generoaren arabera antolatutako lanbideen soldata-etaula (estatistikako bulego nazionaletik eskura daiteke). Kalkuluak egiteko materiala

Lekua: ikasgela.

Hemendik hartua: Ekvalita (2020): Skapa Plats



13. jarduera. Genero-irizpideak kontuan hartzen dituen komunikazioa

Gako-hitzak: komunikazioa, ulermen kritikoa, hizkuntza eta diskurtsoa

Helburuak: Genero-estereotipoen kontzeptua sartzea; ikasleek genero-irizpideak kontuan hartzen dituen komunikazioari buruz duten ezagutza aberastea eta pentsamendu kritikoa garatzea.

Gaitasun-arloak: Gaitasun pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa. Irakurtzeko eta idazteko gaitasuna.

Deskribapena/jarraibideak:

Irakasleak gurutzegramaren adibidea hartuko du abiapuntutzat, eta taula propioa egingo du. Adibidean ageri dena baino txikiagoa edo handiagoa izan daiteke.

Ondoren, irakasleak generoarekin, estereotipoekin eta arauekin lotutako 10-15 hitz aurkeztuko dizkie ikasleei. Honako hitz hauek izan daitezke: matxista, maritxua, koldarra, desberdintasuna, eta abar. Irakasleak ideia-zaparrada bat ere antola dezake, eta ikasleei bururatzten zaizkien hitzetatik abiatuta sor dezake zerrenda.


Jarraian, taula bana emango zaie ikasleei, eta betetzeko eskatuko zaie, hitz guztiak nolabait konektatuta egon daitezen (zuriune asko egongo dira).

Eztabaida: irakasleak ekingo dio aurkezpenari, eta ikasleei eskatuko die hausnar dezatela gurutzegraman erabilitako hitzei buruz. Azkenik, ikasleei hiru esaldi egiteko eskatuko die, gurutzegramako hitzetako bat behintzat erabiliz. Gelako gainerako kideekin esaldi bat partekatzeko eskatuko zaie, eta konta dezatela zer ulertzen duten partekatzeko aukeratu duten esaldiarekin.

Iraupena: ikastordu bat

Lekua: ikasgela.

Materialak: gurutzegramen laukia, hitzen zerrenda, papera/arbela.





14. jarduera. Pentsamendu negatiboak, zakarretara

Gako-hitzak: ahalduntzea, identitatea, osotasuna, norbere buruarekiko errespetua, arauak.

Helburuak: Jarduera honen helburua da ikasleak pentsamendu negatiboak positibo bihurtzen ohitzea, beren buruarekiko errespetua sustatzeko eta pentsamendu positiboak aldaketa lor dezakeela ikusarazteko.

Gaitasun-arloak: Gaitasun zibikoa. Irakurtzeko eta idazteko gaitasuna.

Jarraibideak:

Ikasleei paper bana emango zaie, inguruko pertsonen (gurasoek, irakasleek, lagunek, beraiek...) esan dizkioten mezu negatiboak idatz ditzaten. Zerrenda egindakoan, mezu bakoitza positibo bihurtuko dute.

Azkenik, mezuen alderdi negatiboa moztu eta zakarrontzira botako dute, eta mezu positiboa duen alderdia itsatsiko dute koadernoan.

Gomendioa: Baliteke ikasleei zail egitea pentsamendu negatiboak positibo bihurtzea, eta, beraz, irakasleak lagundu egin beharko die.

Jardueraren amaieran, eskatu taldeei guztien aurrean azaltzeko zer-nola sentitu ziren pentsamendu negatiboak zakarretara

botatzean, eta hauta ditzatela pentsamendu positibo bat edo bi, gainerako kideekin partekatu nahi dituztenak. Denbora librearen arabera, galde diezaiekezu zergatik aukeratu dituzten pentsamendu positibo horiek eta zer egoeratan lagundu diezaiekeen horrela pentsatzeak.

Beste aukera bat da ikasle bakoitzak horma batean idaztea adierazkorrenak eta esanguratsuenak iruditzen zaizkion esaldi positiboak.

Ikasgaiaren plangintza: ikastordu bat

Lekua: ikasgela.

Materialak: papera, guraizeak, boligrafoak.



ADIBIDEZ:

Mezu negatiboak	Mezu positiboak
<ul style="list-style-type: none"> Oso desordenatua zara. 	<ul style="list-style-type: none"> Espiritu sortzailea dut, eta nire logelako desordena da horren adibide garbia.
<ul style="list-style-type: none"> Zure arrebak/ahizpak zuk baino nota hobeak ateratzen ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> Oso trebea naiz hondakinak erabiliz gauzak egiten, eta badakit eskuak erabiltzen.
<ul style="list-style-type: none"> Ez zara ondo konpontzen azterketetan, urduriegi ipintzen zara. 	<ul style="list-style-type: none"> Batzuetan lasai egoten naiz, eta ederki moldatzen naiz kirol-lehiaketetan; beraz, agian eskolako azterketek ipintzen naute urduri.
<ul style="list-style-type: none"> Inozo hutsa naiz, kale egin dut berriro! 	<ul style="list-style-type: none"> Neure akatsekin ikasten dut.
<ul style="list-style-type: none"> Hau zailegia da niretzat. 	<ul style="list-style-type: none"> Pixkanaka-pixkanaka egingo dut; zailegia dela esanez gero, ez dut sekula egingo.



15. jarduera. Nork egiten du zer?

Gako-hitzak: pribilegioak, desberdintasuna, generoaren arabera lan-banaketa

Helburuak: Kontzientzia piztea generoak zer-nola baldintzatu dezakeen etxeko lanen eta betebeharren antolamendua, eta ikasleei hausnartzen laguntzea bidegabekeriari eta desberdintasunari buruz, bai eta bidegabea dena eta desberdin banatuta dagoena aldatzeko gaitasunari buruz ere.

Gaitasun-arloak: Gaitasun pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa. Gaitasun zibikoa. Irakurtzeko eta idazteko gaitasuna.

Jarraibideak:

Ikasleak 2 eta 4 ikasle bitarteko taldeetan ipiniko dira. Talde bakoitzari gure eguneroko bizitzarako funtsezkoa den guztiaren zerrenda idazteko eskatuko diogu: garbitzea, kozinatzea, lorategia zaintzea, haurrez arduratzea, dirua irabaztea, jolastea, medikuarenera joatea, etxeko konponketak egitea, eta abar. Hurrengo fasean, zereginak xehetasunez zehazteko eskatuko diegu (zer gela garbitzen diren, zer janari prestatzen den, zer jolas egiten den, etxean zer konpontzen den, eta abar).

Irakasleak ondorengo taula aurkeztuko du, eta taldeen ekarpenekin osatuko. Ikasle bakoitzak taula jaso eta banan-banan markatuko ditu laukitxo guztiak. Kasu batzuetan marka bat baino gehiago ager daitezke; adibidez, ama-seeek biek egiten badituzte erosketak.

Ondoren, ikasleek beren taulak alderatuko dituzte: Zer den antzekoa eta zer desberdina. Adibide batzuetan, familia erantzunkideak agertuko dira, eta, beste adibide batzuetan, berriz, emakumeek egingo dituzte lanik gehienak –eta, beste batzuetan, gizonek–.

ETXEKO LANAK				
Familiako kideen izenak				
Ontziak garbitzea				
Sukaldea txukuntzea				
Arropa garbitzea				

Eztabaida: zer egin daiteke etxeetan berdintasuna bermatzeko? Zerk berma dezake etxeko eta aisialdiko denbora partekatua eta berdintasunezkoa izatea?

Irakasleak ikasleen ideiak idatziko ditu, eta bakoitzak konpromiso bat hartuko du, astebetez horretan saiatzeko.

Iraupena: 2 ikastordu

Lekua: ikasgela.

Materialak: papera, boligrafoak.



16. jarduera. Bi asteko erronka

Gako-hitzak: generoaren arabera lan-banaketa, pribilegioak, desberdintasuna, botere-egiturak, ahalduntzea, arauak

Helburuak: Ikasleei desafio egitea etxeko lan bat egin dezaten, egin izanaren frogak jaso ditzaten eta guztien aurrean azal dezaten.

Gaitasun-arloak: Gaitasun pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa. Gaitasun zibikoa. Irakurtzeko eta idazteko gaitasuna. Gaitasun digitala.

Jarraibideak:

Ikasleei hurrengo hamabost egunetako uneren batean etxeko lan bat egiteko eskatuko zaie, iruditzen zaienean: erraza den zerbait kozinatzea familiarentzat, etxea garbitzea, lisatzea, entxufe bat konpontzea, eta abar.

Adin desberdinetarako, etxeko lanen Montessori taula har dezakegu kontuan.

Jarduera bakoitzarekin, argazkiak gaineratu behar dira, egindakoa erakusteko (argazkiak nork egin bilatu behar dute). Etxeko lana amaitzen dutenean, diapositiba-aurkezpen batean baliatuko dituzte argazki horiek, eta, aldi berean, haur bakoitzak guztien aurrean azalduko du zer egin zuen, noiz, nola eta nork lagunduta. Era berean, lan hori egitean zer sentitu zuten ere azalduko dute. Gidoi bat izango dute horretarako.

Ondoren, eztabaidatu dezakete zeregin batzuk egokiagoak ote diren neskentzat edo mutilentzat, eta, azkenik, ikasleek eginiko lanekin alderatuko dituzte beren gogoetak.

Iraupena: 1-2 ikastordu, lehenengoa prestatzeko, eta bigarrena, berriz, aurkezteko.

Lekua: ikasgela.

Materialak: ordenagailuak, argazki-kamera bat dokumentatzeko.



© Copyright 2013 www.fairchildfamily.info

Ages 2-3

- Put toys in toy box
- Stack books on shelf
- Place dirty clothes in laundry hamper
- Throw trash away
- Carry firewood
- Fold washcloths
- Set the table
- Fetch diapers & wipes
- Dust baseboards

Ages 6-7

- Gather trash
- Fold towels
- Dust mop floors
- Empty dishwasher
- Match clean socks
- Weed garden
- Rake leaves
- Peel potatoes or carrots
- Make salad
- Replace toilet paper roll

Ages 10-11

- Clean bathrooms
- Vacuum rugs
- Clean countertops
- Deep clean kitchen
- Prepare simple meal
- Mow lawn
- Bring in mail
- Do simple mending (hems, buttons, etc.)
- Sweep out garage

Ages 4-5


- Feed pets
- Wipe up spills
- Put away toys
- Make the bed
- Straighten bedroom
- Water houseplants
- Sort clean silverware
- Prepare simple snacks
- Use hand-held vacuum
- Clear kitchen table
- Dry and put away dishes
- Disinfect doorknobs

Ages 8-9

- Load dishwasher
- Change light bulbs
- Wash laundry
- Hang/fold clean clothes
- Dust furniture
- Spray off patio
- Put groceries away
- Scramble eggs
- Bake cookies
- Walk dogs
- Sweep porches
- Wipe off table



Ages 12 and up

- Mop floors
- Change overhead lights
- Wash/vacuum car
- Trim hedges
- Paint walls
- Shop for groceries w/list
- Cook complete dinner
- Bake bread or cake
- Do simple home repairs
- Wash windows
- Iron clothes
- Watch younger siblings



1. ERANSKINA. Iragarkien adibideak. 1. jarduerarako baliabideak













ПОВЕЧЕ ЗА ПО-МАЛКО... ВСЕКИ ДЕН

офертата е валидна от 6.05.2021 до 19.05.2021

Тениска или шорти

100% памук или с високо съдържание на памук, дамски, с щампа Мими Маус, размери: S-XXL

8 лв.



5 лв.

Тениска или шорти

100% памук или с високо съдържание на памук, за момиче, с щампа Мими Маус, размери: 104-134 см

8 лв.

Тениска или шорти

100% памук или с високо съдържание на памук, дамски, с щампа 101 Далматинци, размери: S-XXL



5 лв.

Тениска или шорти

100% памук или с високо съдържание на памук, за момиче, с принт 101 Далматинци, размери: 104-134 см



8 лв.

Тениска или шорти

с високо съдържание на памук, мъжки, разнообразности: тениска с принт Marvel или шорти с бродиран елемент Marvel, размери: M-XXL

5 лв.

Тениска или шорти

100% памук или с високо съдържание на памук, за момиче, с принт Мики Маус, размери: 104-134 см



5 лв.

Тениска или шорти

100% памук или с високо съдържание на памук, за момиче, с принт Marvel, размери: 104-134 см



Erasmus+

GENERO-KONTZIENTZIA
ESTEREOTIPOEI AURRE EGITEN HEZKUNTZAN



DETERGENTEEN IRAGARKIAK:



